

Eun eta ogeta bederatzi orrialde betetan dituez aukeratu diran idazti danak. Billabideak datoz gero, arduraz eta alegiñez egiñak. Amalau orrialdeko iztegitxo bat, azkenez: «Sarri erabilten diran berba batzuk, bizkaitarrak gipuzkera irakurteko lagungarri.»

N. A.G.



*OXOBI-ren lan orhoitgarri zonbait.* «Gure Herria»k agertarazia. Imprimerie des Cordeliers. Baiona, 1966.

Jules Moulié «Oxobi» (1888-1958) zenaren lan bilduma. J. Haritschelhar-en hitzaurre jakingarri bat darama. Eta bere 214 orrialdeetan haren lanetarik hoberenak biltzen dira. Geiena hizneurtuz egonarren, orotarik da bertan: mendiz mendizko, heiatik zerura, alegiak (eta huntan maixu genuen «Oxobi»), haur elhe haurrentzat, sentipenezko oihuak eta abar. Tartean, *Nola gauden eskualdun* izeneko pastorala ere bada, eta bukatzeko Oxalde bertsulariaren berri zeatzak dakarzki.

Gai ta euskera, aberatsak erabili zituen Oxobik bere denboran, Haritschelhar jaunak ongi dion bezala: «Idazlari eder eta indartsu izan dela Oxobi, nehork ez dezake ukha.» Liburuaren neurthitz xotilak barna, nornaik ikusi daitekean bezala.

J. SAN MARTIN.



GABRIEL ARESTI-ren olerkiak. *Euskal Harria*. Agustin Ibarrolaren marrazkiak. Kriselu-1. Bilbao, 1967.

Liburu hau, askorentzat harrika bezala dator eta beste askorentzat oinharritzat. Zer esana dakarren artean ez dator gaizki.

Euskeraz eta erderaz argitarazia dago.

Lafitte jaunak egin zion «Herria»n aburu jakingarri bat. Ikusi 895-garren zenbakia, buruilaren 28-koa. Bertan zion euskal literatu-